

El resto della concluían sayo de velarte, calzas de velludo para las fiestas con sus pantuflos de lo mismo, los días de entre semana se honraba con su vellori de lo más

fino. Tenía en **su casa una ama que pasaba** de los cuarenta, y una sobrina que no llegaba a los veinte, y un mozo de campo y plaza, que así ensillaba el rocín como tomaba la podadera. Frisaba la edad de nuestro hidalgo con los cincuenta años, era de complexión recia, seco de carnes, enjuto de rostro; gran madrugador y amigo de **la caza. Quieren decir que** tenía el sobrenombre de Quijada o Quesada (que en esto hay alguna diferencia en los autores que deste caso escriben), aunque por conjeturas verosímiles se deja entender que se llama Quijana; pero esto importa poco a nuestro cuento; basta que en la narración dél no se salga un punto de la verdad. Es, pues, de saber, que este sobredicho hidalgo, los **ratos que estaba ocioso (que eran los más del año) se daba a leer libros de caballerías con tanta afición y gusto**, que olvidó casi de todo punto el ejercicio de la caza, y aun la administración de su hacienda; y llegó a tanto *su curiosidad y desatino en esto*, que vendió muchas hanegas de tierra de sembradura, para comprar libros de caballerías en que leer; y así llevó a su casa todos cuantos pudo haber dellos; y de todos ningunos le parecían tan bien como los que compuso el famoso Feliciano de Silva: porque la claridad de su prosa, y aquellas intrincadas razones suyas, le parecían de perlas; y más cuando *llegaba a leer aquellos requiebros y cartas de desafío*, donde en muchas partes hallaba escrito: *la razón de la sinrazón que a mi razón se hace, de tal manera mi razón enflaquece, que con razón me quejo de la vuestra fermosura*, y también cuando leía: *los altos cielos que de vuestra divinidad divinamente con las estrellas se fortifican, y os hacen merecedora del merecimiento que merece la vuestra grandeza*. Con estas y semejantes razones

competencia con el cura de su lugar (que era hombre docto graduado en Sigüenza), sobre cuál había sido mejor caballero, Palmerín de Inglaterra o Amadís de Gaula; mas maese Nicolás, barbero del mismo pueblo, decía que ninguno llegaba al caballero del Febo, y que si alguno se le podía comparar, era don Galaor, hermano de

Amadís de Gaula, porque tenía muy acomodada condición **para todo; que no era caballero** melindroso, ni tan llorón como su hermano, y que en lo de la

TESTUAK IDAZTEKO AHOLKUAK

1. Idazten hasi aurretik
2. Estiloa
3. Berrikusketa eta zuzenketa

1. Idazten hasi aurretik

Idazleak, lanean hasi baino lehen, jakin egin behar du zer-nolako eragina sortarazi nahi duen irakurleengan; hau da, zer lortu nahi duen komunikazioaren bidez.

- Testuaren helburua

Zer komunikatu nahi dut?

Zertarako idazten dut?

Testuarekin zer lortu nahi dut?

HELBURUA	AGIRI MOTA
Eskatzea	- Eskaera - Ofizioa - Eskutitza - Jakinarazpena
Informatzea	- Iragarkia - Esku-orria - Zirkularra - Curriculum - Prentsa oharra
Arautzea	- Dekretua - Ebazpena - Agindua - Instrukzioa
Iritzia ematea	- Txostena - Artikulua
Deitzea	- Bilera-deia - Gonbidapena
Ziurtatzea	- Ziurtagiria - Akta

- Nori zuzenduta dago?

Gure testuaren jasotzailea nor izango den kontuan hartu beharko dugu:

- ✓ Zein ezaugarri du? lankidea da, bezeroa da, erantzukizun bereziko pertsona da...
- ✓ Zer daki gaiari buruz? dakienaren arabera, azalpen gehiago edo gutxiago eskainiko ditugu, kontzeptuak argitu, terminoak zehaztu, etab.
- ✓ Zein jarrera du? axolagabe edo kontra agertuko dela aurreikusten badugu, zer egin ahal dugu aldeko izan dadin?
- ✓ Zer behar du? zein eratako informazioa behar du? emandako informazioarekin zer egin nahi du? erakundearen helburuen eta bere interesen artean aldea dago?
- ✓ Zein eragin lortu nahi dut berarengan?
- ✓ Noiz irakurriko du testua?

2. Estiloa

Plinio Gazteak eskutitz batean hau idatzi zuen: *“Barkatu hain eskutitz luzea idaztea, ez dut laburtzeko astirik izan”*

ARGIA, LABURRA, ERRAZA

Administrazioan esaldiak puztu eta luzatzeko ohitura dugu, ustezko maila “jaso” baten bila. Baina, gaztelaniaz “ondo” irakurtzen diren esaldi motroilo horiek euskaraz, askotan, irentsi ezinak izaten dira.

Esaldi laburrek komunikazioa erraztu egiten dute: irakurleak hobeto jasoko du informazioa eta datuak gogoan hartuko ditu.

Esaldiak laburtzeko aholkuak:

- Esaldia, gehienez, 20 hitzetakoa izan dadila. Beste batzuek 30 hitzetan jartzen dute muga.
- Ideia bat esaldiko. Esaldi batek ideia nagusi bi izanez gero, hobe bitan zatitzea.
- Jarri hasieran garrantzitsuena, horrela errazagoa baita informazio hutsala kentzea.
- Erabili puntuazioa esaldiaren egitura azalarazteko.
- Bigarren mailako informazioa emateko beste esaldi batzuk erabili.
- Ez errepikatu.
- Informazio asko eta konplexua daukazunean, zatitu: zenbakidun zerrendak egin.
- Adibideetarako ere, erabili beste esaldi bat.
- Erne ibili eta esaldi laburren etan ere, zaindu argitasuna.
- Ulertzeko errazak diren hitzak aukeratuko ditugu. Termino ezezagunak edo oso teknikoak direnean, esanahia azaldu behar dugu.

ADITZA NATURALAGOA DA

- Administrazioan estilo nominalerako joera handia dago. Aditza erabili beharrean, askotan, aditza izen bihurtzen dugu. Ondorioz, esaldia luzatu eta kontzeptuak modu abstraktuagoan ematen ditugu. Aditza erabiliz testua naturalagoa da.

☹ Bileran egingo da idazkariaren aukeraketa

😊 Bileran aukeratuko da idazkaria

PASIBOAK EZ DU MEZUA AKTIBATZEN

- Esaldi pasiboek informazio gutxiago ematen dute, askotan ez delako argi gelditzen subjektua zein den. Luzeagoak izaten dira eta erritmoa moteldu egiten dute.

☹ Erregistroak hiru hilean behin eguneratuak izango dira.

😊 Departamenduko buruak hiru hilean behin eguneratuko ditu erregistroak.

EZEZKO ESALDIA, BAIEZKOA BAINO ILUNAGOA

- Esaldiak baiezkotan errazago ulertzen dira, informazio gehiago ematen dute eta. Ezezko esaldi asko elkarren segidan jarritz gero, irakurlea nahastuko dugu.

☹ Deialdian aurkeztutakoak EZ badira zerrendan agertzen EZ daude onartuta.

😊 Onartutakoen zerrenda.

☹ Ez dugu uste lanpostuan 4.HE ez dutenak ezin direnik azterketara aurkeztu.

😊 Uste dugu 4.HE ez dutenak ere azterketara aurkez daitezkeela.

GERUNDIOAK

Erdarazko gerundioa maiz itzultzen da euskaraz '-larik' edo "-z" erabiliz; baina kontuz, hainbat balio izan ditzake: modua, kausa, kontzesioa, denbora... eta badirudi gehiegi erabiltzen hasiak garela edo behar ez den lekuetan. Hori dela eta, ondoko kontu hauek gogoan hartu beharra dago:

- Ez da gomendatzen gerundioa erabiltzea ondorioa adierazten duenean edo erlatibozko baten ordezkoa denean:

☹ Autoak istripua izan zuen Zangotzan, lau lagun hil zirelarik.

☹ Araudi berria argitaratu da, ikasleen eskubideak zehaztuz / zehazten direlarik.

Lehenean 'lau lagun hiltzea' aurrekoaren ondorioa da eta beste era askotara formula daiteke:

😊 Autoak istripua izan zuen Zangotzan eta lau lagun hil ziren bertan.

😊 Autoak Zangotzan izan zuen istripuan lau lagun hil ziren.

😊 Autoak Zangotzan istripua izan zuen eta lau lagun hil ziren istripuaren ondorioz.

Bigarreanean, berriz:

😊 Araudi berria argitaratu da, ikasleen eskubideak zehazten dituen.

😊 Araudi berria argitaratu da, ikasleen eskubideak zehazteko.

😊 Edonola ere, biderik errazena dugu ondoriozkoetan 'eta' juntagailua erabiltzea eta besteetan erlatibozkoa erabiltzea.

Edonola ere, biderik errazena dugu ondoriozkoetan 'eta' juntagailua erabiltzea eta besteetan erlatibozkoa erabiltzea.

Baina badira 'aldiberekotasuna' adierazten duten esaldiak; horiek, gerundioa erabiliz egin daitezke.

ALFERRIKAKO ERLATIBOAK

Gaztelaniaz, erlatibozko kate luzeak egiten ditugunean ez da arazo handirik egoten mezua ulertzeko, erlatibozko erdal partikulek (*que, el cual, de quien, con el cual, a la que...*) erlatibozko mendeko perpausaren aurrean kokatuta, iragarle lana egiten dutelako. Baina, esaldi horiek hitzez hitz euskaratzen ditugunean arazo ugari izaten dugu, mezua behar bezala ulertzeko, euskal erlatiboaren egituragatik.

Hori konpontzeko, geure hizkuntzaren baliabideak hartu eta esaldi horiek beste modu batera antolatu behar ditugu. Hona hemen gaztelaniazko erlatiboak ordezkatzeko zenbait aukera:

- **Esaldi soila**

☹ Hori da gaur egungo egoera zehatz-mehatz azaltzen duen txostena.

😊 Txosten horretan azaltzen da zehatz-mehatz gaur egungo egoera.

- **Izenlagunak**

☹ Elkarre honetan parte hartzen duten kide guztiek eskaera aurkeztu beharko dute.

😊 Elkarteko partaide guztiek eskaera aurkeztu beharko dute.

- **Esaldia zatitu**

☹ Onartutako proiektuan jasotako oinarrizko zehaztasunei dagozkien aldaketak sartzeko, ezinbestekoa izango da baimena lortzea.

😊 Oinarrizko zehaztasunak onartutako proiektuan jasotzen dira. Zehaztasun horiek aldatzeko, ezinbestekoa izango da baimena lortzea.

- **Koordinazio kopulatiboa**

- ☹ Ez genituen onartu hizkuntza-eskakizunetako azterketetan parte hartzeko oker betetako eskabideak.

- ☺ Hizkuntza-eskakizunetan parte hartzeko eskabide batzuk gaizki beteta jaso genituen, eta ez genituen onartu.

- **Baldintzazkoa**

- ☹ Ez dira onartuko IVApek antolatutako ikastaroetan parte hartzeko oker betetako eskabideak.

- ☺ Ez dira onartuko IVApek antolatutako ikastaroetan parte hartzeko eskabideak, baldin eta oker beteta badaude.

- **Koordinazio adbertsatiboa**

- ☹ Maila-aldaketa ekarriko ez dizun oinarri-aldaketa egin dute.

- ☺ Oinarriak aldatu dituzte, baina horrek ez dizu maila-aldaketarik ekarriko.

- **Azalpenezko perpausa**

- ☹ Utz diezaiogun berri interesgarri asko kontatzeko dituen Asla Jaunari hitz egiten.

- ☺ Utz diezaiogun hitz egiten Asla jaunari, berri interesgarri asko kontatuko baititu.

- **Helburuzkoa**

- ☹ Arlo bakoitzerako zuzendariak unean uneko arazoei irtenbide egokia emango dien arduradun bat izendatu du.

- ☺ Zuzendariak arduradun bat izendatu du arlo bakoitzerako, unean uneko arazoei irtenbide egokia emateko.

- **Denborazko / baldintzazko perpausak**

- ☹ Indarrean dauden legeekin bat ez datozen neurri zuzentzaileei buruzko proposamenak ez dira kontuan hartuko.

- ☺ Ez dira kontuan hartuko neurri zuzentzaileei buruzko proposamenak, indarrean dauden legeekin bat ez datozenen.

- ☺ Ez dira kontuan hartuko neurri zuzentzaileei buruzko proposamenak, baldin eta indarrean dauden legeekin bat ez badatoz.

- **Zehargaldera**

- ☹ Langileak hartzeko hautaketa-probak izango diren tokia aldeztu aurretik ezagutzea komeni da.

- ☺ Langileak hartzeko hautaketa-probak non izango diren aldeztu aurretik jakitea komeni da.

KOHESIONATUAK

Testu-antolatzaileak dira testu baten edukiak antolatzeko elementu erabilienetakoak:

- **Idea bati hasiera emateko**

Hasteko, hasiera emateko, lehen ideia moduan, lehenengo eta behin, beste ezer baino lehen, beste ezertaz hitz egiten hasi baino lehen, lehen-lehenik, sarrera emateko.

- **Ideiak ordenatzeko**

lehenik... bigarrenik... hirugarrenik... azkenik; lehen... bigarrena... hirugarrena... azkena; hasteko... bestalde... bukatzeko; hiru puntu azpimarratu nahi nituzke: bat... bi... hiru / lehen... bigarrena... hirugarrena; alde batetik... beste aldetik...; batetik... bestetik

- **Ideiak eranste**

ere, ez ezik... ere, ez hori bakarrik, ere bai, baita ere, gainera, halaber, bestalde, ideia horrekin jarraituz, komeni da esatea/gaineratzea/gehitzea, horretaz gain, -ri dagokionez, ...dela eta

- **Adibideak emateko**

adibidez, esate baterako, esaterako, hala nola, demagun, konparazio baterako, besteak beste, besteen artean, eman/aipa/esan dezagun

- **Idea bat azpimarratzeko**

ez hori bakarrik, gainera, halaber, behintzat, behinik behin, bederen, gutxienez

- **Idea bat birformulatzeko**

hau da, hots, alegia, hain zuzen ere, beste hitz batzuetan esanda, beste modu batera esanda, bestela esanda, esandakoa argitzeko asmoz, aipatu bezala, esan dugunez, zehatzago esanda, hobeto esanda

- **Idea bati kontra egiteko**

baina, dena den/dela, hala (eta guztiz) ere, edozelan ere, edonola ere, nolanahi ere, edozein eratan/modutan ere, esanak esan, hori gorabehera, ordea, berriz, aldiz, oster, aitzitik, alabaina

- **Arrazoiak emateko**

izan ere, zeren, bait-, -(e)lako, -(e)la eta, horregatik, hori dela eta, horrela

- **Ondorioak aurkezteko**

beraz, hortaz, orduan, horrenbestez, honenbestez, hainbestez, hala

- **Idea batekin bukatzeko**

Amaitzeko/bukatzeko, azkenik, amai/buka dezadan/dezagun esanez, hitz gutxitan esanda, laburbilduz, ideia garrantzitsuena hau da, horrek zera

erakusten du, laburbilduz, bi hitz bukatzeko, ideia bat azpimarratu nahi dut/dugu amaitzeko/bukatzeko

Argi dago testu-motaren arabera antolatzaile batzuk beste batzuk baino gehiago erabiliko ditugula.

Testua ulergarria izan dadin testu antolatzaileak zuzen erabili behar dira; ez da komeni testua antolatzailez jostea.

Testu antolatzaile eta lokailuez gain badaude testu baten ideiak solte ez gelditzeko beste baliabide batzuk:

- **Errepikapena**

Deialdi honen xedea da euskara ikasten dabiltzan herritarrentzako bekak emateko laguntzak arautzea. Bekak euskaltegietan matrikulatuta dauden herritarrek eskatu ahal izango dituzte.

Hala ere, kontzeptu bera behin eta berriro berrartu ordez badira beste bitarteko batzuk: sinonimoak, parafrasiak, eta abar.

- **Sinonimoak eta baliokideak**

Eskabidea herritarrak bete behar du. Inprimakiarekin (eskabidearekin) batera interesatuak (hemitarrak) euskaltegiko matrikula aurkeztuko du.

- **Parafrasiak**

Atzo aurkeztu zen "Krisiari aurre egiteko baliabide eta eskumenak" txostena. Egungo egoera larriari aurre egiteko asmoz sortutako idatziaren ("Krisiari aurre egiteko baliabide eta eskumenak" txostenaren) 100 ale banatuko dira udal langileen artean.

- **Izenordainak**

Azken urteetan etorkin kopuruak asko egin du gora. Hainbat laguntza aurreikusi dira euren (etorkinen) egoera sozio-ekonomikoa hobetzeko.

- **Erakusleak**

Lehen graduak (hau, hauek, honi, hauei, honetan...) ostean datorren kontzeptuari edo ideari erreferentzia egiteko.

*Baldintza **hauek** bete behar dira diru-laguntza jasotzeko: herrian erroldatua egotea, 78 urte edo gehiago izatea eta eskatzailearen bizikidetzako unitateak ondoko baremo taulan jasotako diru-sarrerarik ez gauditzea.*

Bigarren graduak (hori, horiek, horri, horiei, horietan...) aurretik aipatutako kontzeptuari edo ideari erreferentzia egiteko.

*Agiri hauek aurkeztu beharko dira: a) Bizikidetzako ziurtagiria. Agiri **hori** Arrasateko Udalak egin behar duenez, ofizioz egiaztatuko da; b)...*

Hirugarren graduak (hura, haiek, hari, haiei, hartan...) erreferentzia egin nahi den kontzeptua edo ideia testuan urruti gelditu bada edota testutik kanpora badago.

*1983an hainbat ikastaro antolatu ziren herriko errealitatearen berri emateko.
ikastaro haien arrakasta ikusita berriro ere antzeko ekimen bat antolatzea
erabaki du udalak.*

3. BERRIKUSKETA ETA ZUZENKETA

Agiri bat zuzentzeak sekulako garrantzia du idazketa-prozesuaren barruan. Azken batean, orain arte egindako ahalegin guztiek porrot egin dezakete, ez badugu idazkia behar bezala berrikusten eta zuzentzen, hartzaileari bidali aurretik edo argitara eman baino lehen.

Hona hemen gomendio batzuk idazkiak berrikusteko eta zuzentzeko:

- Arau nagusia: lehen irakurraldian ulertzen ez denak, oro har, ez du balio, eta, beraz, berriro idatzi behar dugu. Beste modu batean esanda: idazki bat ulertzen ez bada, erruduna ez da irakurlea, idazlea baizik, izan ere ez gara gauza izan ideiak argi eta garbi aditzera emateko.
- Aukera izanez gero, testu bat idazten amaitu, eta zuzentzen hasi arte, tarte bat pasatzen uztea komeni da. Labetik atera berri den idazkia argia iruditzen zaigu gehienetan, ulergarria, ondo idatzia; hozten denean, berriz, zalantzak sortzen dira eta baita gaizki-ulertuak ere.
- Ez begirik kendu, ez izenburuei, ez tamaina handiko hitzei, ez zenbakiei, ez hilen izenei eta horrelakoei, hortxe ezkutatzen baitira hanka-sartzerik potoloenak.
- Betiere kontuan izan laguntzarik eraginkorrena beste pertsona batek emango dizula. Laguntzaile horrek irizpide berriekekin egingo dio aurre idazkiari, zuk topatu ez dituzun akatsak aurkituko ditu, eta ideia berriak emango.